



EGOERA: Asteburuan zer egin pentsatzen ari zara. Kultura-eskaintzak irakurri dituzu.

ANTZERKIA	ERAKUSKETA	ZINEMA	KONTZERTUA	BERTSOLARITZA
PUTINEN GUARDASOLA	ELÍAS, VIDA MÍA	AMAMA	MIKEL URDANGARIN	JULIO SOTO ETA IKER ZUBELDIA
XENTIMORIK GABE ANTZERKI TALDEAK aurkeztuko du bere obra dibertigarria.	Elías Querejeta ekoizlearen figuran eta obran oinarrituta dagoen erakusketa: zinemari eskainitako bizitzaren argazkiak.	Zuzendaria: Asier Altuna. Aktoreak: Iraia Elias, Kandido Uranga, Klara Badiola, Ander Lipus, Manu Uranga, Amparo Badiola, Nagore Aranburu. Iraupena: 103 minutu. Generoa: Drama. Herrialdea: Euskal Herria.	<i>Aspaldi ate-joka nuen taula gainean bakarrik aritzeko behar sakona. Nire gitarra eta nire ahotsa.</i>	Bi bertsolariek emango dute saioa.
LEKUA: GAZTESZENA (Donostia)	LEKUA: SAN TELMO MUSEOA (Donostia)	LEKUA: PRINCIPE ZINEMAK (Donostia)	LEKUA: Biteri Kultur Etxea (Hernani)	LEKUA: Frontoia (Legorreta)
EGUNA: 2016/10/23 ORDUA: 20:00	EGUNA: 2016/10/01- 2016/10/31 ORDUTEGIA: Asteartetik igandera 10:00-20:00	EGUNA: 2016/10/20 ORDUTEGIA: 17:00 20:00 22:15	EGUNA: 2016/10/25 ORDUTEGIA: 22:00	EGUNA: 2016/10/24 ORDUTEGIA: 20:00
PREZIOA: 8 EURO	PREZIOA: DOHAINIK	PREZIOA: 6,80 EURO	SARRERA: 7 EURO	SARRERA: DOHAINIK



1. Nora joango zara gitarraz lagundutako abestiak entzun nahi badituzu?

- A) Julio Sotoren kontzertura.
- B) Bertsolaritza saiora.
- C) Biteri Kultur Etxera.



2. Urriaren hogeian bakarrik duzu denbora zerbait egiteko, baina ez dituzu museoak atsegin. Nora joan zaitezke?

- A) "Putinen Guardasola" obra ikustera.
- B) Asier Altunaren filma ikustera.
- C) "Elias, vida mía" erakusketa ikustera.



3. Barre egin nahi baduzu, nora joango zara?

- A) San Telmo Museoko erakusketara.
- B) "Amama" filma ikustera.
- C) "Xentimorik gabe antzerki taldea"-ren obra ikustera.



4. Ez baduzu dirurik gastatu nahi, nora joango zara?

- A) Bertsolariak entzutera.
- B) Mikel Urdangarinen kontzertura.
- C) Donostian emango duten antzerki obra ikustera.



5. Ba al dago filmik Gasteszenan?

- A) Bai, urriaren 23an.
- B) Ez, antzezlan bat dago.
- C) Bai, arratsaldeko zazpian.

